

## Xedapen Orokorrak

### INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

789

AGINDUA, 2007ko urtarrilaren 18koa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuarena, Sailaren eta horri lotutako edo horren mendeko erakundeen kontratuak arautuko dituzten klausula administratiboen pleguetan sartu behar diren ingurumen-baldintzak eta irizpideak ezartzen dituena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko ekainaren 4an onartu zituen 2002-2020rako Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiak eta 2002-2006rako Ingurumeneko Esparru Programak, merkatuak ingurumenaren alde egin dezaten bultzatzea ezartzen dute, EAEn iraunkortasunerantz aurrera egiteko beharrezko baldintzen artean. Esparru honetan, gainera, honako hauek zehazten dira xede gisa: irizpide ekologikoak kontuan hartuko dituen erosketa publikoko politika sustatzea eta Erosketa eta Kontratazio Publikoan Ingurumen Irizpideak Txertatzeko Programa lantzea.

Bestalde, EAEko Ingurumenaren Iraunkortasunerako Kontsumo-Planaren oinarritzeko agiria (2006-2010) ildo beretik doa, eta erosketa publiko berdearen sistema bat garatu beharra dagoela aipatzen du.

Horren ondorioz, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2005eko ekainean ISO 14001 ziurtagiria eskuratu ostean, sailaren administrazioko kontratazio-prozeduretan kontuan izan beharko diren ingurumen-irizpideak ezartzea lehentasunezko xedetzat hartu zuen erakundeak berak.

Prozesu honetan, ingurumen-alderdi horiek kontratazioaren zein unetan kontuan hartu behar diren argi eta garbi bereizi beharko da, hau da: kontratuaren zehaztapen teknikoetan, lehiaketan esku hartzen duten enpresei eskatu beharreko gaitasun eta kaudimen irizpideetan, eta lehiaketak esleitzeko irizpide objektiboean.

Bestalde, ez da ahaztu behar administrazio kontratzaileak proposamen onuragarriena identifikatzeko erabiliko dituen esleipen-irizpideak ez daukatela zertan irizpide ekonomiko hutsak izan; ingurumen-irizpideak ere ezar daitezkeela, baldin eta horiek kontratuaren xedearekin zerikusi zuzena badute.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

789

ORDEN de 18 de enero de 2007, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se establecen requisitos y criterios ambientales a introducir en los pliegos de cláusulas administrativas que rijan en los contratos de este Departamento y de las entidades vinculadas o dependientes del mismo.

La Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 y el Programa Marco Ambiental 2002-2006, aprobados por el Consejo de Gobierno el 4 de junio de 2002, establece como una de las condiciones necesarias para avanzar hacia la sostenibilidad en la CAPV, la de incitar al mercado a actuar a favor del medio ambiente. En este marco, se plantean como objetivos el de la promoción de una política de compras públicas que introduzca criterios ecológicos y el de la elaboración de un Programa de Integración de Criterios Ambientales en la Compra y la Contratación Pública.

Por otra parte el Plan Vasco de Consumo Ambientalmente Sostenible (2006-2010), incide en esta misma línea al aludir a la conveniencia del Desarrollo de un Sistema de Compras Públicas Verdes.

Como consecuencia de ello y al haber obtenido el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio la certificación ISO 14001 el pasado mes de junio de 2005, se plantea como objetivo inmediato del propio Departamento la conveniencia de establecer los criterios ambientales que habrán de tenerse en cuenta en los procedimientos de contratación administrativa del mismo.

En este proceso, es necesario establecer una clara separación entre los distintos momentos de la contratación en los que pueden tenerse en cuenta dichos aspectos ambientales: especificaciones técnicas del contrato, criterios de capacidad y solvencia que deban exigirse a las empresas licitadoras, y los criterios objetivos para la adjudicación de los concursos.

Por otra parte, no conviene olvidar que los criterios de adjudicación a utilizar por la Administración contratante a efectos de identificar la proposición más ventajosa no tienen que ser de naturaleza puramente económica y que cabe la aplicación de criterios ambientales siempre que los mismos estén directamente relacionados con el objeto del contrato.

Nolanahi ere, ezarri dira ingurumen-irizpideak prozedura negoziatu bidezko kontratazioetarako, eta baita, kontratu txikitzen kontuan izan beharreko aholku edo gomendioak ere, nahiz eta Administrazio Publikoaren kontratu buruzko Legeak arautzen dituen, kontratu txiki horietan, berez ez dagoen kontratazio-espeditzea izapidetu beharrik.

Horregatik guztiarengatik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 11. artikulua kontratuen arloko Estatutuko oinarriko legeria dagokion lurralderako garrantu, erregelamenduak egin eta betearazteko Autonomia Erkidegoari ematen dizkion eskumenen arabera, eta ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren inguruan ekainaren 30eko 7/1981 Legeari jarraiki dagozkidan eskumenak betez,

#### XEDATU DUT:

##### 1. artikulua.— Xedea eta aplikazio-eremua.

1.— Agindu honen xedea da Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta berorri atxikitako edo berorren menpeko erakundeen kontratu-mota ezberdinetan gaitasun tekniko eta profesionalen baldintzak zein esleipenerako irizpide objektiboak jartzerakoan, kontuan izan beharko diren ingurumen-irizpideak ezartzea, baldin eta kontratuaren xedearekin zerikusirik badute.

2.— Kontratu horietako klausula administratiboen pleguan aipatu beharko dira espresuki ingurumen-irizpide horiek.

3.— Lehiaketei dagokienez, ezar daitezkeen beste esleipen-irizpide objektibo batzuekin batera erabiliko dira ingurumen-irizpide hauek, proposamenik onuragarriena aukeratzeko.

4.— Ingurumen-irizpide horien balioespena eginagatik ere, enpresa kontratatzaileek derrigorrez bete beharko dituzte baldintza teknikoaren pleguan irizpide horien gainean ezar dakizkiekeen baldintzak.

##### 2. artikulua.— Gaitasun tekniko eta profesionala.

1.— Agindu honen aplikazio-eremuko kontratu gutxietan, lehiaketan esku hartzen duten pertsona guztiak egiaztatu behar duten gaitasun tekniko eta profesionalen baldintza artean, honakoren bat edo batzuk jaso beharko dira, betiere, lehiakortasun askearen aurkakoak ez badira:

a) Ingurumenaren kudeaketarako praktika egokien arabera jardutea. Baldintza hori betetzen dela honakoren baten bidez egiaztatuko da:

— Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren bat ezarrita izanda: 2001eko martxoaren 19ko 761/2001 EE Araudia (EMAS araudia), UNE-EN-ISO 14001 Araua, Ekoscan Araua zein beste arau baliokideren bat betetzen duena.

No obstante, también se han incluido criterios ambientales para las contrataciones a través de procedimientos negociados así como indicaciones o recomendaciones a tener en cuenta para los contratos menores que, como la Ley de contratos de las Administraciones Públicas regula, no exigen la tramitación de expediente de contratación propiamente dicho.

Por todo ello, de conformidad con las competencias que el artículo 11 del Estatuto de Autonomía del País Vasco atribuye a la misma para el desarrollo legislativo, la potestad reglamentaria y la ejecución, dentro de su territorio, de la legislación básica del Estado en materia contractual, y las competencias que me corresponden de conformidad con la Ley 7/1981, de 30 de junio, en relación con el Decreto 8/2005, de 27 de junio,

#### DISPONGO:

##### Artículo 1.— Objeto y ámbito de aplicación.

1.— Es objeto de esta Orden el establecimiento de criterios ambientales que deberán ser tenidos en cuenta al fijar, tanto los requisitos de solvencia técnica y profesional como los criterios objetivos de adjudicación de los distintos tipos de contratos del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio y de la Administración Institucional vinculada o dependiente del mismo, cuando éstos estén relacionados directamente con el objeto del contrato.

2.— Los criterios ambientales deberán estar expresamente mencionados en los pliegos de cláusulas administrativas de dichos contratos.

3.— En el caso de los concursos, estos criterios ambientales servirán, junto con otros criterios objetivos de adjudicación que puedan establecerse, para determinar la proposición más ventajosa.

4.— La valoración de estos criterios ambientales será independiente de la obligación de la empresa contratista de cumplir las exigencias que, en su caso, se hubieran establecido en relación con cualquiera de ellos en los correspondientes pliegos de prescripciones técnicas.

##### Artículo 2.— Solvencia técnica y profesional.

1.— En todos los contratos incluidos dentro del ámbito de aplicación de esta Orden, se incluirán entre los requisitos de solvencia técnica o profesional a acreditar por las personas licitadoras, y siempre que ello no suponga un menoscabo al principio de libre competencia, alguno o varios de los siguientes requisitos:

a) Actuación conforme a las buenas prácticas de gestión ambiental. La acreditación del cumplimiento de dicho requisito podrá realizarse de alguna de las siguientes maneras:

— Por tener establecido un Sistema de Gestión Ambiental, en virtud del Reglamento CE 761/2001, de 19 de marzo de 2001 (Reglamento EMAS) o la Norma UNE-EN-ISO 14001, Norma Ekoscan u otra norma equivalente.

– Beste bide egokiren baten bidez jarduketa hori egiaztatuta. Bide horien artean, enpresaren izenean eskaintza sinatzen duen pertsonak I. eranskinetako ingurumen arloko praktika egokien konpromisoa izenpetzea onartuko da.

b) Ingurumen-gaietan alde aurretik esperientzia edo espezializazioa izatea, kontratazioaren xedeak ingurumenean izan ditzakeen eraginaren ingurukoa. Baldintza hori ingurumenaren arloko ezagutza tekniko berezia behar den kontratuaren eskatu ahal izango da, plegu teknikoek eska dezaketenen gainerako titulazio edo esperientziak gain.

c) Kontratuan ingurumenarekiko ageri den ikuspegiaren arabera, behar diren baliabide material eta giza baliabide bereziak izatea.

2.– Aurrekoen gain, sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko eskatuko zaio lehiaketan parte hartzen duenari, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren kontratuak esleitzeko egiten diren klausula administratibo partikularren pleguetan, eta hori egiaztatzeko beharrezko agiriak aurkeztu beharko dituztela.

3.– Bestalde, agindu honen helburu diren obra-kontratuak esleitzeko egin daitezkeen klausula administratibo partikularren pleguetan, Hondakin Arriskutsuen Ekoizle izateko Baimena, edo hala badagokio, Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan izena eman izanaren Ebazpena izatea eskatuko zaio, espresuki, obraren esleipendunari. Horrelakorik izan ezean, Organo Eskudunean (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritza) goikoa lortzeko dagokion izapidea egin izanaren egiaztapena onartuko da.

**3. artikulua.**– Obra-kontratuak esleitzeko irizpide objektiboak.

Lehiaketa bidez esleitzeko obra-kontratuaren prestakuntza diren klausula administratibo partikularren pleguetan, ondoren zehazten diren ingurumen-irizpide objektiboren bat edo batzuk sartuko dira. Irizpide hauek sakondu gabe ageri dira eta ez dira baztertzailerik:

a) Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa behar duten lanak direnean, aurkeztutako eskaintzetan Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpenean ezarritako eskakizunak areagotzen dituzten alderdiak sartu izana baloratuko da, bereziki, neurri zuzentzaileen, baldintzen eta ingurumena zaintzeko programaren ingurukoak badira.

b) Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziorik behar ez duten obratan, berriz, aurkeztutako eskaintzetan baloratuko da administrazio esleitzailerik onartutako proiektuan edo aplikatu daitezkeen arau teknikoan es-

– Justificar dicha actuación, mediante cualquier otro medio adecuado, entre los que se admitirá la suscripción del anexo I de compromiso de buenas prácticas ambientales por parte de la persona que firma la oferta en representación de la empresa.

b) Experiencia previa o especialización en materias ambientales, que deberá ser adecuada respecto a las eventuales incidencias ambientales que pueda tener la contratación de que se trate. La acreditación del cumplimiento de dicho requisito se podrá exigir en aquellos contratos que requieran conocimientos técnicos especiales en el campo del medio ambiente y sin perjuicio de las restantes titulaciones o experiencia que se exijan en los pliegos técnicos.

c) Disponer de los medios materiales y humanos específicos que requiera el enfoque ambiental del contrato.

2.– Además de los anteriores, los pliegos de cláusulas administrativas particulares que se elaboren para la adjudicación de contratos objeto de esta Orden deberán reflejar la exigencia para el o la licitadora de estar llevando a cabo una adecuada gestión de los residuos que generan. Deberán presentar para ello la documentación justificativa que acredite dicho extremo.

3.– Por otra parte, los pliegos de cláusulas administrativas particulares que se elaboren para la adjudicación de contratos de obras objeto de esta Orden deberán reflejar la exigencia para el o la adjudicatario de la obra de contar con la Autorización de Productor de Residuos Peligrosos, o en su caso la Resolución de Inscripción en el Registro de Pequeños productores de Residuos Peligrosos. En su defecto, se aceptará evidencia documental de haber realizado el trámite correspondiente ante el Órgano Competente (Dirección de Calidad Ambiental del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco).

**Artículo 3.**– Criterios objetivos de adjudicación para los contratos de obras.

Los pliegos de cláusulas administrativas particulares que se elaboren para la adjudicación, mediante forma de concurso, de contratos de obras incluidos dentro del ámbito de aplicación de esta Orden incorporarán alguno o varios de los siguientes criterios ambientales de carácter objetivo, que se relacionan de manera no exhaustiva ni excluyente:

a) Cuando se trate de obras sometidas a evaluación de impacto ambiental, se valorará que las ofertas presentadas incluyan aspectos que incrementen las exigencias impuestas por la Declaración de Impacto Ambiental (DIA), y en particular en lo referente a las medidas correctoras, condiciones y al programa de vigilancia ambiental que en la misma se incluyan.

b) Cuando se trate de obras que no hayan de someterse a evaluación de impacto ambiental, se valorará que las ofertas presentadas integren aspectos ambientales que sean más exigentes que los requisitos de esta natu-

katzen direnak baino ingurumen-baldintza zorrotza-  
goak sartu izana, besteak beste, eraginak identifikatu  
eta ebaluatzeko azterlanak, eta neurri zuzentzaileak pro-  
posatzen dituztenak.

c) Eskaintzetan aintzat hartuko da proiektatutako  
obraren eragin-eremuan edo ingurune geografikoan in-  
gurumena leheneratzeko edo biodibertsitatea babeste-  
ko jarduera zehatzak proposatzea.

d) Eskaintzetan aintzat hartuko da eraikuntzan eta  
eraipean ahalik eta hondakin gutxien sortzeko edo  
sortutako hondakinak birziklatzeko nahiz balioesteko  
praktikak sartzeara, hala dagokionean eraipen-teknika  
selektiboak erabiliz.

e) Eskaintzetan aintzat hartuko da jarduerak buru-  
tuko diren lurzoruetan kutsadura ekiditeko edo kalita-  
tea kontrolatzeko neurri bereziak (prebentzio, babes eta  
edo kontrol eta jarraipenerako neurriak) izatea, betie-  
re, proiektuan eskatutakoak baino zorrotzagoak badi-  
ra.

f) Aintzat hartuko da obratan energiaren eraginkor-  
tasunaren ziurtagiria duten produktuak, instalazioak  
edo makinak erabiltzea.

g) 1980/2000 zenbakiko EE Araudiaren esparruan,  
zenbait produktuentzako etiketa ekologikoa lortzeko  
irizpideak definituta daudenean, eta obran horietako  
produktu batzuk erabili behar direnean, produktu ho-  
riek etiketa ekologikoa izatea aintzat hartuko da.

h) Aintzat hartuko dira energia edo bestelako onda-  
sun naturalen kontsumoa aurrezteko, energia berrizta-  
garriez baliatzeko, eta ontzi birziklagarriak eta berre-  
rabilgarriak zein birziklatze- edo berrerabiltze-prozesu  
batean sortutakoak erabiltzeko, eta ingurumena area-  
go errespetatzen duten garraiobideak erabiltzeko pro-  
posamenak egiten dituzten eskaintzak.

i) Aintzat hartuko dira produktuaren bizitza-zikloa-  
ren gainean egindako azterketak, beste produktu ba-  
tzuekin alderatuta obran erabilitako produktuak ingu-  
rumen aldetik egokiagoak direla egiaztatzen badute.

**4. artikulua.**– Zerbitzu publikoen kudeaketa-kon-  
tratuak esleitzeko irizpide objektiboak.

Agindu honen aplikazio-eremuan, zerbitzu publi-  
koen kudeaketarako kontratuak lehiaketa bidez esle-  
itzeko prestatzen diren klausula administratibo partiku-  
larren pleguetan, balorazio-irizpidea izango da inguru-  
nearen onurarako eta ingurumenaren gainean ahalik eta  
gutxien eragingo duen kudeaketa egitea.

Horretarako, ondoren zehazten diren ingurumen-  
irizpide objektiboren bat edo batzuk bete beharko di-  
tuzte. Irizpide hauek sakondu gabe ageri dira eta ez di-  
ra baztertzailak:

raleza que consten en el proyecto aprobado por la ad-  
ministración adjudicadora o en la normativa técnica que  
resulte de aplicación, tales como el que incorporen es-  
tudios de identificación y evaluación de impactos y pro-  
puestas de medidas correctoras.

c) Se valorará que las ofertas incluyan propuestas de  
realización de determinadas actuaciones de corrección  
ambiental o de protección de la biodiversidad en la zo-  
na de influencia o en el entorno geográfico de la obra  
proyectada.

d) Se valorará en la oferta la inclusión de prácticas  
de construcción y/o demolición orientadas a minimizar  
la producción de residuos y/o a incrementar las tareas  
de reciclaje o valorización de los residuos generados, a  
través en su caso de la utilización de técnicas de demo-  
lición selectiva.

e) Se valorará la inclusión en la oferta de medidas es-  
pecíficas destinadas a evitar la contaminación de los sue-  
los objeto de actuación y/o controlar su calidad (medi-  
das preventivas, de defensa y/o de control y seguimien-  
to), siempre que las mismas excedan de las exigidas en  
el proyecto.

f) Se valorarán las certificaciones de eficiencia ener-  
gética de los productos, instalaciones o maquinaria que  
se utilicen en la obra.

g) Cuando se utilicen en la obra alguno de los pro-  
ductos para los que hayan definido los criterios de con-  
cesión de la etiqueta ecológica en el marco del Regla-  
mento CE n.º 1980/2000, se valorará la posesión de la  
mencionada etiqueta.

h) Se valorará que las ofertas incluyan propuestas de  
ahorro del consumo de energía y de otros bienes natu-  
rales, de empleo de energías renovables o de utilización  
de productos o envases reciclables reutilizables o valo-  
rizables o procedentes de procesos de reciclado, reuti-  
lización o valorización o la utilización de medios de  
transporte más respetuosos con el entorno.

i) Se valorarán estudios de Ciclo de Vida de Produc-  
to en el que se demuestre la ventaja medioambiental de  
los productos utilizados en la obra, frente a otras alter-  
nativas.

**Artículo 4.**– Criterios objetivos de adjudicación pa-  
ra los contratos de gestión de servicios públicos.

Los pliegos de cláusulas administrativas particula-  
res que se elaboren para la adjudicación, mediante for-  
ma de concurso, de contratos de gestión de servicios pú-  
blicos incluidos dentro del ámbito de aplicación de es-  
ta Orden incorporarán como criterio de valoración que  
la gestión se realice de la forma más beneficiosa para el  
entorno o con menor impacto ambiental.

A tal fin, se relacionan, de manera no exhaustiva ni  
excluyente, algunos criterios ambientales de carácter  
objetivo que se podrán valorar, para la adjudicación del  
contrato:

a) Produktu berrerabiliak edo birziklatuak erabiltzea.

b) Berrerabili, birziklatu edo balioztatu ahal diren produktuak erabiltzea.

c) Energia berriztagarriak erabiltzea.

d) Energiaren eraginkortasunaren ziurtagiria duten produktuak, instalazioak edo makinak erabiltzea.

e) Isolamendu termiko edo akustiko hobea izatea.

f) Erabili behar diren ekipamenduek edo sistemek bateragarritasun elektromagnetikoa izatea eta sortzen duten erradiazioa gutxitzea.

g) Airera, pertsonentzat edo bestelako edozein ondamentzat arriskutsuak, kaltegarriak edo gogaikarriak izan daitezkeen materia edo energia-modu gutxiago (akustikoa eta dardarazkoa barne) igortzea.

h) Ingurumena areago errespetatzen duten garraio-bideak.

i) Ingurumenaren gainean ahalik eta eragin txikiena sortzen duten mantentze-neurriak.

j) Ahalik eta hondakin gutxien sortzea, horiek balioztatzea eta, ezinbestekoa baino ez denean, kontrolpean desagerraraztea lehenesten dituen hondakinen kudeaketa egokia.

**5. artikulua.**— Hornidura-kontratuak esleitzeko irizpide objektiboak.

Hornidura-kontratuak lehiaketa bidez esleitzeko prestatzen diren klausula administratibo partikularren pleguetan, kontratua esleitzeko aintzat hartu beharreko ingurumen-irizpide objektiboak sartuko dira.

Horretarako, ondoren zehazten diren ingurumen-irizpide objektiboren bat edo batzuk sartu beharko dira. Irizpide hauek sakondu gabe ageri dira eta ez dira baztertzailak.

a) Ingurumena ahalik eta gehien errespetatzen duten ezaugarriak erabiltzea banatu beharreko produktuetan, bitarteko produktuetan, horien ekoizpen-prozesuan eta, oro har, produktuen bizi-ziklo osoan. Honako hauek aintzat hartu ahal izango dira, hain zuzen ere:

– Produktu berrerabiliez edo birziklatuez baliatzea. Irizpide hau balioztatzeko, amaierako produktuaren gaineko portzentajea erabiliko da.

– Berrerabili, birziklatu edo balioztatu ahal diren produktuez baliatzea. Irizpide hau balioesteko, amaierako produktuaren gaineko portzentajea erabiliko da.

– Produktuak ahalik eta ontzi arinenetan, edo birziklatu zein berrerabilietan ontziratzea.

b) Produktuak ekoiztu, biltegitatu, desagerrarazi edo birziklatzeko prozesuetan, elektrizitatea edo bestelako energiak zein ondasun naturalak aurrezteak.

a) Empleo de productos reutilizados o reciclados.

b) Empleo de productos reutilizables, reciclables o valorizables.

c) Empleo de energías renovables.

d) Utilización de productos, instalaciones o maquinaria que cuenten con certificaciones de eficiencia energética.

e) Mejor aislamiento térmico o acústico.

f) Compatibilidad electromagnética y reducción en la radiación emitida por los equipos o sistemas a utilizar.

g) Menor emisión al aire de materias o formas de energía, incluida la acústica o vibratoria, que impliquen riesgo, daño o molestia para las personas y bienes de cualquier naturaleza.

h) Medios de transporte más respetuosos con el entorno.

i) Medidas de mantenimiento con el menor impacto ambiental.

j) Adecuada gestión de los residuos que prime la minimización en origen de los mismos, su valorización y tan sólo en última instancia su eliminación controlada.

**Artículo 5.**— Criterios objetivos de adjudicación para los contratos de suministro.

Los pliegos de cláusulas administrativas particulares que se elaboren para la adjudicación, mediante forma de concurso, de contratos de suministros incluidos dentro del ámbito de aplicación de esta Orden incorporarán criterios ambientales de carácter objetivo que se habrán de valorar, para la adjudicación del contrato.

A tal fin, se relacionan, de manera no exhaustiva ni excluyente, algunos criterios ambientales de carácter objetivo:

a) Presencia de las características más respetuosas con el medio ambiente en los productos a suministrar, en productos intermedios, en su proceso de producción y, en general, en todo el ciclo de vida de los productos. En concreto, se podrán valorar las siguientes:

– Empleo de productos reutilizados o reciclados. Para la valoración de este criterio, se utilizará su porcentaje sobre el producto final.

– Empleo de productos reutilizables, reciclables o valorizables. Para la valoración de este criterio, se utilizará su porcentaje sobre el producto final.

– Empleo de productos con menor peso de sus envases, o envasados en recipientes reciclados o reutilizados.

b) Ahorros en los consumos de electricidad y de otras energías, o en los bienes naturales en el proceso de producción, almacenamiento, eliminación o reciclado de los productos.

c) Eskaintzan sartzen diren ekipamenduek bateragarritasun elektromagnetikoa izatea eta sortzen duten erradiazioa gutxitzea.

d) Eskainitako ondasunak erabili edo kontsumitzean hondakin gutxi sortzea, eta sortutako hondakinak tratatzeko kostua merkea izatea.

e) Produktuaren izaerak ahalbidetzen duenean, eta horren bizi-ziklo osoan zehar, airera, pertsonentzat edo bestelako edozein ondasunentzat arriskutsuak, kaltegarriak edo gogaikarriak izan daitezkeen materia edo energia-modu gutxiago (akustikoa eta dardarazkoa barne) igortzea.

f) 1980/2000 EB Araudiaren esparruan, etiketa ekologikoa emateko irizpideak esleituta dituzten produktuen banaketari dagokionean, delako etiketa horren jabe izatea.

g) Produktuaren izaerak ahalbidetzen duenean, engeiaren eraginkortasunaren ziurtagirien jabe izatea.

h) Produktuen bizi-zikloari buruzko azterlanak balioetsiko dira, baldin eta produktu jakin batek beste batzuen aldean ingurumen abantailak dituela egiaztatzen badute.

**6. artikulua.**– Aholkularitza eta asistentzia eta zerbitzuen kontratuak esleitzeko irizpide objektiboak.

Agindu honen aplikazio esparruan, aholkularitza eta asistentzia eta zerbitzuen kontratuak lehiaketa bidez esleitzeko prestatzen diren klausula administratibo partikularren pleguetan, ingurumen-irizpide objektiboak sartuko dira, eta ondorengo aurreikuspenen arabera balioetsiko dira:

a) Zerbitzuen kontratuetan, zerbitzua ematean ingurunearentzat modu onuragarriagoan edo ingurumenean eragin txikiagoa sortuz aritzea balioetsiko da, erabilitako metodoagatik nahiz produktuak, baliabideak, hondakinak eta antzekoak kudeatzeko moduagatik. Zerbitzuak aipatutako helburua betetzen duela egiaztatzeko, ondorengo alderdiren bat edo batzuk hartuko dira kontuan:

- Produktu berrerabiliak edo birziklatuak erabiltzea.
- Berrerabili, birziklatu edo balioztatu ahal diren produktuak erabiltzea.
- Energia berriztagarriak erabiltzea.
- Isolamendu termiko edo akustiko hobea jartzea.
- Erabili behar diren ekipamenduek edo sistemek bateragarritasun elektromagnetikoa izatea eta sortzen duten erradiazioa gutxitzea.
- Gas gutxiago igortzea.
- Ingurumena gehiago errespetatzen duten garraio-bideak.
- Ingurumenaren gainean ahalik eta eragin txikiena sortzen duten mantentze-neurriak.

c) Compatibilidad electromagnética y reducción de las radiaciones emitidas por los equipos incluidos en la oferta.

d) Baja generación de residuos en el uso o consumo de los bienes ofertados, y bajo coste de tratamiento de los residuos generados.

e) Cuando proceda por la naturaleza del producto, y respecto a todo el ciclo de vida del mismo, una menor emisión al aire de materias o formas de energía, incluida la acústica o vibratoria, que impliquen riesgo, daño o molestia para las personas y bienes de cualquier naturaleza.

f) Cuando se trate de un suministro de alguno de los productos para los que hayan definido los criterios de concesión de la etiqueta ecológica en el marco del Reglamento CE n.º 1980/2000, la posesión de la mencionada etiqueta.

g) Cuando proceda por la naturaleza del producto, disponer de certificados de eficiencia energética.

h) Se valorarán estudios de Ciclo de Vida de Producto en el que se demuestre la ventaja medioambiental del producto, frente a otras alternativas.

**Artículo 6.**– Criterios objetivos de adjudicación para contratos de consultoría y asistencia y de servicios.

Los pliegos de cláusulas administrativas particulares que se elaboren para la adjudicación, mediante la forma de concurso, de contratos de consultoría y asistencia y de servicios, incluidos dentro del ámbito de aplicación de esta Orden incorporarán criterios ambientales de carácter objetivo que se habrán de valorar según las siguientes previsiones:

a) En los contratos de servicios, se valorará que la prestación se realice de la forma más beneficiosa para el entorno o con menor impacto ambiental, ya sea por el método empleado, por la gestión de productos, recursos y residuos, u por otros similares. Para demostrar la adecuación de la prestación a la finalidad aludida, se podrán tener en cuenta alguno o varios de los siguientes aspectos, que se relacionan de manera no exhaustiva ni excluyente:

- Empleo de productos reutilizados o reciclados.
- Empleo de productos reutilizables, reciclables o valorizables.
- Empleo de energías renovables.
- Mejor aislamiento térmico o acústico.
- Compatibilidad electromagnética y reducción en la radiación emitida por los equipos o sistemas a utilizar.
- Menor emisión de gases.
- Medios de transporte más respetuosos con el entorno.
- Medidas de mantenimiento con el menor impacto ambiental.

– Sortzen den hondakin-kantitatea murriztea edo sortutakoa hobeto kudeatzea.

b) Aholkularitza eta asistentziako kontratuak direnean, horiek burutzean edo amaierako produktuan ingurumen-alderdi garrantzitsuak sartzea aintzat hartuko da. Ingurumenari buruzko azterlanak bakarrik egingo dituzten aholkularitzak edo asistentziak kontratatu behar direnean, ez da honelako puntuaziorik erantsi behar.

c) Berariaz, obra-proiektuak idazteko asistentzia kontratatu behar denean, eta egin beharreko lanaren eduki teknikoaren arabera, proiektuetan ingurumen-alderdiak txertatzea proposatzea aintzat hartuko da. Horretarako, honako hauek txertatzea balioetsiko da: ingurumena errespetatzen duten bizi-ziklodun materialak eta obran ezartzerakoan erabilitako modua, ingurunerako onuragarri diren exekuzio-prozedurak, ahalik eta hondakin gutxien sortzera edo sortutako hondakinak ahalik eta gehien birziklatzera zuzendutako erakuntza eta eraispen-moduak, jarduketak non burutuko diren lurzoru horiek kutsatzea ekiditeko eta horien kalitatea kontrolatzeko neurri bereziak, edo ingurumena gehiago babesten duten eta lehiaketaren helburua betetzeko komenigarri diren antzeko beste batzuk, betiere, eta hala badagokio, ezinbestean bete behar diren baldintza teknikoan pleguan edo bestelako xedapenetan jasotzen diren baldintzak baino onuragarriagoak badira.

**7. artikulua.**– Gaitasun tekniko eta profesionalerako betekizunak nahiz esleipenerako, ingurumen izaerako irizpide objektiboak txertatzeko baldintzak.

1.– Ez dira ezarriko agindu honen 2. artikuluan aipatzen diren gaitasun tekniko eta profesionalerako betekizunak, baldin eta kontratuaren xedearekin edo hurra gauzatzeko moduarekin zuzenean lotuta ez badaude.

2.– Esleipenerako irizpide objektiboen artean ez da ezarriko kontratuaren xedearekin edo hurra gauzatzeko moduarekin zuzenean lotuta ez dagoen alderdirik.

3.– Esleipenerako irizpide objektibo bakar gisa balioetsiko dira baldintza teknikoetan edo lanak gauzatzeko proiektuan (obrak badira) nahiz aplikatu dakioken edozein arautan ezarritako gutxienezko eskakizunetaz gainera dauden alderdiak.

4.– Esleipenerako aipatutako irizpideak berariaz eta zehatz adieraziko dira eta garrantzi handienetik txikienerako hurrenkeran jarriko dira, bakoitzaren ponderazioa adierazita. Horrela lizitatzaile guztiek modu berean ulertu ahal izango dituzte eta eskaintza desberdinen balioespenak konparatu ahal izango dira.

5.– Ingurumen izaerako irizpide desberdinetan pila-tutako puntuak kontratua esleitzeko erabiliko diren

– Reducción de la cantidad o mejor gestión de los residuos generados.

b) Cuando se trate de contratos de consultoría y asistencia, se valorará que en su ejecución o en el producto final de la misma se incorporen aspectos ambientales relevantes. No será necesario incluir ninguna puntuación de esta naturaleza cuando se trate de consultorías o asistencias que tengan por objeto la elaboración de un estudio de naturaleza exclusivamente ambiental.

c) Cuando se trate, específicamente, de asistencias para la redacción de proyectos de obras, y en función del contenido técnico del trabajo a realizar, se podrá valorar que las ofertas propongan la integración de aspectos ambientales en la ejecución los proyectos a realizar. A tal fin, se podrá valorar la incorporación de materiales cuyo ciclo de vida y puesta en obra sean respetuosos con el medio ambiente, procedimientos de ejecución beneficiosos para el entorno, prácticas de construcción y/o demolición orientadas a minimizar la generación de residuos o a incrementar las tareas de reciclaje o valorización de los residuos generados, medidas específicas destinadas a evitar la contaminación de los suelos objeto de actuación y/o controlar su calidad, u otros similares que supongan una mayor protección ambiental y que siendo convenientes para el cumplimiento del objeto de la licitación, excedan, en su caso, de los que vinieran exigidos con carácter obligatorio por el pliego de prescripciones técnicas o por otras disposiciones de obligado cumplimiento.

**Artículo 7.**– Condiciones para la incorporación de requisitos de solvencia técnica y profesional y criterios objetivos de adjudicación de carácter medioambiental.

1.– En ningún caso se establecerán los requisitos de solvencia técnica y profesional a que alude el artículo 2 de esta Orden cuando los mismos no estén directamente vinculados con el objeto del contrato o su modo de ejecución.

2.– En ningún caso se establecerán como criterios objetivos de adjudicación aspectos o elementos que no se encuentren directamente vinculados con el objeto del contrato o su modo de ejecución.

3.– Sólo se valorarán como criterios objetivos de adjudicación aspectos que excedan de las exigencias establecidas, con carácter mínimo y obligatorio, por las prescripciones técnicas o las condiciones de ejecución establecidas en los pliegos, en el proyecto (en el caso de obras), y en cualquier norma aplicable.

4.– Los referidos criterios de adjudicación se describirán de forma específica y concreta y se relacionarán por orden decreciente de importancia, con indicación de la ponderación que se les atribuya, de manera que todas las personas licitadoras puedan interpretarlos de la misma forma y permitan la valoración comparativa de las distintas ofertas.

5.– La puntuación acumulada de los distintos criterios de carácter medioambiental podrá alcanzar hasta el

irizpide objektibo guztiekin lor daitekeen puntuazio osoaren % 10 osatuko dute gehienez.

**8. artikulua.**– Prozedura negoziatuak eta kontratu txikiak.

1.– Prozedura negoziatuetan, enpresa esleipendunarekin negoziatuko diren alderdi ekonomiko eta teknikoetan, aurreko artikuluetan aipatu diren eta kontratuaren xedearekin zerikusia duten ingurumen-irizpideak sartuko dira.

2.– Berez kontratazio-plegurik izaten ez duten kontratu txikietan, oro har, aurreko artikuluetan aipatu diren eta kontratuaren xedearekin zerikusia duten ingurumen-irizpideak bete beharko dira, halaberharrez.

**9. artikulua.**– Aldagaiak sartzea.

Agindu honen xede diren kontratuak esleitzeko lantuko diren klausula administratibo partikularren pleguetan, aurreko artikuluetan aipatu ditugun ingurumen izaerako irizpide bat edo batzuk aintzat hartu ahal izango dira, aldagai edo beste aukera moduan, baldin eta pleguetan horretarako aukera jasota badago, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 87. artikuluaekin bat.

**10. artikulua.**– Egiatzatzeko moduak.

Aplikatu beharreko pleguetan beste osagarri batzuk eska badaitezke ere, ondorengo hauek izango dira goian aipatutako ingurumen-baldintzak eta –irizpideak betetzen direla egiatzatzeko agiriak:

a) Europako eta nazioarteko arauetan oinarritutako ingurumen-kudeaketarako sistema ezarrita dagoela egiatzatzeko, erakunde independente publikoek edo pribatuek egindako ziurtagiriak, ziurtagiriei buruz Europan eta nazioartean dauden arauak jarraituz; ezarritako kudeaketa sistema aurkeztea, enpresako goi-zuzendaritzak sinatuta eta edukia eta inplantazio-maila adierazita edo, hala badagokio, praktika egokien eranskina behar bezala izenpetuta gehitzea.

b) Aplikatu behar diren irizpideak, estandarrak edo arauak betetzen direla egiatzatzeko, erakunde publikoek edo pribatuek egindako ziurtagiriak.

c) Agindu honetan jasotako modu eta irizpide guztiak betetzen direla frogatzeko behar beste agiri, betiere, agiria egiten duen erakundeak lehiaketan esku hartzen duenarekin kontratu bidezko harreman zuzena ez badu.

2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, martxoaren 19ko 761/2001 EE Erregelamenduak araututako europar sistemaren araberrako Ingurumenaren Kudeaketarako Sistema bat ezarrita izan, edo UNE-EN-ISO 14001 araua, Ekoscan araua edo antzekoa betetzen duen ingurumen-kudeaketako ziurtagiriren baten jabe izan,

10% de la puntuación total de los criterios objetivos de adjudicación del contrato.

**Artículo 8.**– Procedimientos negociados y contratos menores.

1.– Para los procedimientos negociados se incluirán, en los aspectos económicos y técnicos objeto de negociación con la empresa adjudicataria, aquellos criterios ambientales de los mencionados en los en los artículos anteriores que tengan relación con el objeto del contrato.

2.– Para los contratos menores, donde no hay propiamente pliegos para la contratación, se exigirán con carácter general el cumplimiento de aquellos criterios ambientales de los mencionados en los en los artículos anteriores que tengan relación con el objeto del contrato.

**Artículo 9.**– Introducción de Variantes.

Los pliegos de cláusulas administrativas particulares que se elaboren para la adjudicación de los contratos objeto de esta Orden podrán asimismo recoger la toma en consideración de alguno o varios de los criterios ambientales de los mencionados en los artículos anteriores como variantes o alternativas, cuando dicha posibilidad haya sido recogida en los pliegos de conformidad con el artículo 87 de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

**Artículo 10.**– Medios de acreditación.

La documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos y criterios ambientales antes señalados, sin perjuicio de que pueda exigirse otra complementaria en los pliegos de aplicación, podrá consistir en lo siguiente:

a) Certificados expedidos por organismos independientes públicos y privados conforme a las normas europeas o internacionales relativas a certificación, que acrediten el establecimiento de un sistema de gestión ambiental basado en normas europeas o internacionales en la materia; aportación del sistema de gestión ambiental establecido firmado por la alta dirección de la empresa especificando su contenido y el grado de implantación en la empresa o, en caso, aportación del anexo de buenas prácticas debidamente suscrito.

b) Certificados expedidos por organismos públicos y privados que acrediten el cumplimiento de los correspondientes criterios, estándares o normas de aplicación.

c) Cuantos otros documentos puedan demostrar de forma fehaciente el cumplimiento de los medios y criterios recogidos en la presente Orden, condicionado, en todo caso, a que dicho documento sea emitido por una entidad que no mantenga relación contractual directa con la o el licitador.

Cuando, de acuerdo con lo previsto en el artículo 2, no se haya establecido como condición de solvencia exigible para participar en la licitación, los y las licitadoras que tengan implantado un Sistema de Gestión Ambiental conforme al Sistema europeo, regulado en el Reglamento CE 761/2001, de 19 de marzo, o dispongan



eta baldintza hori lehiaketan esku hartzeko gaitasun bezala eskatu ez denean, eskaintzaileek delako egiaztagiri horiek aurkeztu ahal izango dituzte, eskaintzen dituzten produktu edo zerbitzuek balioetsiko diren ingurumen-irizpideak betetzen dituztela egiaztatzeko. Horretarako, aurkeztutako ingurumen-kudeaketarako tresnen egiaztagiriek zerikusia izango dute aintzat hartuko diren irizpideekin.

**XEDAPEN IRAGANKORRA.**– Kontratazioko espedienteen erregimen iragankorra.

Honako agindu hau indarrean sartu aurretik abiarazitako kontratazio-espedienteak, hasi zirenean aplikatzekoa zen araudiaren arabera izapidetzen jarraituko dira; agindu honetan jasotako xedapenak ez zaizkie aplikatuko, beraz.

**AZKEN XEDAPENA.**– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeie egunera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urtarrilaren 18a.

Ingurumen eta  
Lurralde Antolamendu sailburua,  
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

## 1. ERANSKINA

### INGURUMEN PRAKTIKA EGOKIEN ADIERAZPENA

Eskaintzaileak adierazten du ondoren zehazten diren baldintzak betetzen dituela:

1.– Ingurumenari kalte egiten ez dioten lehengaiak erabiltzea, eta materialak berrerabili, birziklatu edo balioztatzea.

2.– Behar dituen natur baliabide eta gaiak (ura, energia... etab.) zentzuz erabiltzea.

3.– Jardutean sortutako hondakin guztiak (arriskuak eta ez arriskuak) gaiaren inguruan indarrean dagoen araudia betez kudeatzea.

4.– Jardutean ahalik eta zarata edo usain gogaikarri gutxien sortzeko behar beste neurri hartzea.

5.– Ingurune eta ingurumenean kalteak sor ditzaketen produktuen jario eta isuriak ekiditeko behar beste neurri hartzea.

6.– Instalazio eta jarduerako toki guztiak txukun eta garbi edukitzea, ingurumena errespetatuta eta zainduta egotearen itxura emateko.

de una certificación de gestión ambiental, según la Norma UNE-EN-ISO 14001, Norma Ekoscan, o equivalentes, podrán aportar los mismos a efectos de acreditar, respecto a los productos o servicios que oferten, que en los mismos se cumplen los criterios ambientales objeto de valoración. A tal efecto, deberá existir relación entre lo que se acredite mediante los instrumentos de gestión ambiental aportados y los criterios a valorar.

**DISPOSICIÓN TRANSITORIA.**– Régimen transitorio de los expedientes de contratación.

Los expedientes de contratación en los que se haya acordado el inicio con anterioridad a la entrada en vigor de esta Orden se seguirán tramitando conforme a la normativa aplicable en el momento de su iniciación, sin que les sean de aplicación las disposiciones contenidas en este Orden.

**DISPOSICIÓN FINAL.**– Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial de País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de enero de 2007.

La Consejera de Medio Ambiente  
y Ordenación del Territorio,  
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

## ANEXO 1

### DECLARACIÓN DE BUENAS PRÁCTICAS MEDIOAMBIENTALES

La persona licitadora declara que cumple las condiciones que a continuación se detallan:

1.– Utilizar materias primas respetuosas con el medio ambiente y reutilizar, reciclar o valorizar los materiales.

2.– Utilizar de forma racional los recursos naturales y suministros necesarios (agua, energía, etc.).

3.– Gestionar todos los residuos generados en la realización de la actividad (peligrosos y no peligrosos) de acuerdo con la legislación vigente en la materia.

4.– Adoptar las medidas necesarias para minimizar los posibles ruidos y olores desagradables que se pudieran generar en el desempeño de la actividad.

5.– Tomar las medidas necesarias para evitar los derrames y vertidos de productos, que puedan tener incidencia negativa en el entorno y en el medio ambiente.

6.– Mantener el orden y la limpieza en todas las instalaciones y lugares de actuación, para dar imagen de respeto y cuidado del Medio Ambiente.

Enpresak baldintza horiek guztiak betetzeko dituen prozedura eta neurrien deskribapena aurkeztu du, adierazpen honen eranskin gisa.

Sin.: ..... jn./and.

NAN: .....

Honako honen izenean: .....

## Agintariak eta Langileria

### Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

#### OSASUN SAILA

790

873/2006 EBAZPENA, abenduaren 1ekoa, Txagorritxu Ospitaleko zuzendari kudeatzailearena, Txagorritxu Ospitaleko zuzendariorde mediko lanpostua betetzeko Mikel Errasti Gutierrez jauna izendatzeko dena.

Aztertu dugu Txagorritxu Ospitaleko zuzendariorde mediko lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori kudeaketako zuzendaritza honen 2006ko urriaren 17ko 784/2006 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2006ko azaroaren 17ko EHAA n.º (220. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merituen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Mikel Errasti Gutierrez jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori dela eta, kudeaketako zuzendaritza honek hau

Aporta para ello como anexo a la presente declaración una descripción de los procedimientos y medidas de que dispone la empresa para su cumplimiento.

Fdo.: D.<sup>a</sup>/D. ....

DNI: .....

En representación de .....

## Autoridades y Personal

### Nombramientos, Situaciones e Incidencias

#### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

790

RESOLUCIÓN 873/2006, de 1 de diciembre, del Director Gerente del Hospital Txagorritxu, por la que se nombra a D. Mikel Errasti Gutierrez para desempeñar el puesto de Subdirector Médico del Hospital Txagorritxu.

Vista la convocatoria para cubrir el puesto de Subdirector/a Médico del Hospital Txagorritxu, publicada en el BOPV n.º 220, de 17 de noviembre de 2006, mediante Resolución n.º 784/2006, de 17 de octubre de 2006, del Director Gerente del Hospital Txagorritxu.

Resultando que finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por el único aspirante al desempeño del puesto de que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el «Curriculum Vitae».

Considerando que, a la vista de la documentación presentada, D. Mikel Errasti Gutierrez se adecua al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.

En virtud de cuanto antecede, esta Dirección Gerencia,